


JOSETXO ORUETA



ORTZIREN HORTZA

Itzulpena: J. SAGASTIZABAL



Sintesiak

Kapituluka, irakurtzen laguntzeko

0 Koblakari gaztea · Hunaldo, soldadu frankoa

Koblakari gaztea bere gurdian dago, saio arrakastatsu baten ondoren. Agure zahar itxura txarreko bat sartu da. Gazteari oldartu zaio, aurpegiatuaz kontatzen dabilen istorioa faltsua dela. Bera, Hunaldo, han izan zela, borrokaldian, eta badakiela zer gertatu zen. Kontatuko diola egiazko istorioa.

I. Mikelot eta aita Gartxot bidaian · Balea · Oiartzunerantz · Idoia · Koblakariak

- Mikelot bere aita Gartxotekin bidaian. Kostaldean balea harrapatzen ikusi dute. Oiartzunera doaz. Han, festa giroan, dantzan, neska beltzaran bat ikusi du: Idoia. Afalorduan hizketan egon dira.
- Gartxot koblakari ospe handikoa da. Hauek bertsoz edo prosaz eta musikarekin gertakizunak kantatzen zituzten; historiagileak ziren.
- Afalondoan, Mikelot eta Idoia elkarrekin egon dira, bakarka, hizketan.

II. Karlomagno · Armada itzela · Penintsularantz doa · Bi mezulari: bata, baskoia; bestea, sarrazenoa

- Karlomagnoaren armada itzelaren deskribapena. Bi taldetan banatuta sartu da penintsulan. Zatik handiena mendebaldeko Pirinioetatik sartu da; bestea, ekialdetik.
- Frankoen armadaren bidaia luzea eta neketsua izan da Akitanian zehar. Halako batean, atsedena hartu eta koblakarien istorio heroikoak entzun dituzte. Orain mairuen aurka doaz, Zaragoza eta Kordobako emirrak menderatzera.
- Bi mezulari iritsi dira: bata, baskoia; bestea, sarrazenoa. Baskoia Velasco* deitzen da, Iruñeko batzarrek ongi etorria ematera bidalia. Bestea, Matruh da, Sulaymanen semea: negoziatzeko prest daudela jakinarazi dio eta nafar musulmanak ez daudela euren menpe, eta Tuteran dutela hiri nagusia.

(*Belasko = Bele txiki)

III. Gartxot, Mikelot eta Idoia Iruñerantz · Argotearrak · Amaia

- Mikelot eta Gartxot badoaz Oiartzundik. Berri kezkarriak Iruñetik. Hara joan behar dute.
- Idoiak hosto poltsa bat eman dio Mikeloti, sendabelarrak. Eta bere zaldia ere utzi dio: Aralar.
- Iruñerako bidean Leire lehengusina ikusiko duela oroitu du. Bidean argotearrak batu zaizkie, Amaia taldeburu.

IV. Karlomagno baroiekin: plana · Errolan Iruñean

- Frankoak eztabaidan ari dira. Karlomagno Iruñea aukeratu du geldialdia egiteko. Antselmo kondea (Adalardo, Errolan) ez dator bat; nahiago du Kalahorra edo Erriberri. Karlomagno bere planen berri eman die bere buruzagiei.
- Errolan Iruñean sartu da. Harrera ona izan dute. Santxok delako batek hitz egin die eta hirian zehar jende askoren mirespena erakarri dute.
- Iruñea askotarikoa da. Lau erlijio. Hiru familia handi: Velascotarrak, kristauak; Banu-Qasitarrak, musulmanak; Aristarrak, bataiorik onartzen ez dutenak. Eta juduak.
- Elizkizunaren ondoren, familia nagusien etxeetan oturuntza eta festa, kalean eta etxeetan.

V. Gartxot Haitzbitartera iritsia · Frankoen armada · Ximenoren etxean · Leire · Potes judua

- Gartxot Haitzbitartera iritsi da, Iruñea iparraldean. Hango lautada osoa frankoen armadak betetzen du; erraldoia da eta ondo antolatua.
- Ximenoren etxean (jauregi antzekoa), Olivier eta Errolan daude ostaturik. Leire iritsi da eta osaba Gartxot besarkatu du. Leire eta Mikelot etxetik irten dira.
- Potes judua, aberats izandakoa. Hau frankoen kanpamentuan ibili da. Bi umek txantxa egin diote, "txolarre kakaztua" rena. Arista eta Onekaren semeak izan dira: Eneko (7 urte) eta Fortun Arista (5 urte). Gazte hauek oso pozik Mikelot lehengusuen istorioekin.
- Nagusiek egoera aztertu. Frankoak joandakoan gerra batzarrerako deia egingo dute.

VI. Leire · Mikelot · Iruñeko ordezkariak · Karlomagnoaren erabakia

- Mikelot eta Leire euren txokora joan dira eta hizketan egon dira luzaroan.
- Etxe batean zalaparta sortu da. Ximeno agertu eta tirabira baretu da. Karlos erregearengana joateko lau ordezkari behar direla dio Geifrei dukeak. Emakumerik ezetz. Amaia prest zen joateko. Bat: Ximeno Indartsua; bi, Santxo; hiru, Potes; lau, batzarraren dekanoa. Laurak joan dira Karlosengana. Honek Nafarroa hegoaldeko musulmanez galdetu die. Gezurrekin erantzun diote, egoera arriskutsua baita.
- Karlomagno erabaki du Iruñean bahiturik ez hartzea, eta goarniziorik ez uztea. Itzultzean hirian pausatuko da. Bitartean buruzagi bat izendatu behar dutela –Karlosen menpeko izango da– eta denak bataiatu behar direla. Frankoek ondorioztatu dute baskoiak –akitaniar anaiak ez bezala– ez direla arriskugarriak.

VII. Iruñean jai giroan · Mikelot koblakari · Basajaun

- Iruñean, bigarren jai gaua. Gartxoten etxean Errolanek Mikeloti baskoien istorio bat kontatzeko eskatu dio. Honek iseka egin die frankoei kontakizunaren bidez, baina haiek barreka. Bukieran Olivier eta Errolanek Basajauni buruz galdetu diote Gartxoti.
- Biharamunean, Gartxot eta Mikelot frankoen kanpamentura. Urkamendia ikusi dute, itxitura bat preso hartutakoentzat. Preso zahar bat dute, basajaun bat, kateatuta. Basajaunek ezagutzen du Gartxot. Honek zalantza du: espero zutena ote da gatibua?
- Errolanen aginduz kateak kendu dizkiote. Basajaunek leku sakratu batera gonbidatu ditu, Eunateko harri zirkulura.
- Kanpamentutik irtetea, emakume preso talde bat ikusi dute. Haien artean Idoia ikusi du Mikelotek.

VIII. Mikelot frankoekin · Basajaun · Eunate

- Mikelot frankoen kanpamentuan utzi du Gartxotek. Horrek Amaiaren sumindura eragin du.
- Bilerara joango direla onartu dute: Oneka, Gartxot joango dira, eta arabiar baten esperoan daude. Ximenok ezin ulertu basajaunak zergatik ez duen bera aukeratu eta bai, ordea, Mikelot. Mezulariak bidaliko ditu, buruzagiak Lizarran biltzeko.
- Eunate: leku magikoa. Horren deskribapena eta pertsonaiek han zer sentitu duten.

IX. [778ko udaberri amaiera](#) · [Karlomagno Ebrorantz](#) · [Tutera](#) · [Mutarrif](#) · [Borrokaldea](#) · [Negoziazioa](#)

778ko udaberriaren amaieran, Karlomagnoen armada Ebrorantz abiatzekoa da. Zalditeria arina bidali du aurretik, bidea garbitzera: Tutera da helburua.

Hiriaren ondoan zaldun talde batek aurre egin die, Mutarrif horien buru. Errolan eta Olivier ohartu dira denbora irabaztearren borrokatzen direla. Azkenean, negoziatu eta zera hitzartu dute: frankoen armadak ez dio erasoko hiriari, Banu-Qasitarrak (baskoien lagun) erretiratu egingo dira, eta ez diete mehatxurik egingo frankoei.

X. [Zaragoza](#) · [Al Hussayn](#) · [Sulayman](#) · [Aysun eta Matruh](#) · [Al Aswad](#)

Zaragozan Al Hussayn da buru. Zaragozako walia Bartzelona eta Tarragona gobernatzeko zuen wali handiarekin elkartuta zegoen. Han Sulaymanek du agintea. Honen seme Aysun eta Matruh ere Zaragozan daude.

Al Aswad. Kordobako musulman buruzagiaren ziegatetik ihes egitea lortu du. Orain egoera berria profitatuz, Karlomagno eta Espainiako musulman erresuma elkarren kontra xaxatuko dituzte, eta ondoren beraiek (Sulayman, semeak, koinatua, Al Hussayn eta Al Aswad) nagusituko dira Europako musulman munduaz.

XI. [Mikelot frankoen armadan](#) · [Frankoei Sulaymanen harrera](#) · [Elkarrekin Zaragozarantz](#) · [Han, ustekabea](#)

Mikelotek frankoen armadan geratzea erabaki du. Idoia du gogoan. Frankoen armada iritsi da Ebrora. Zati batek ibaia zeharkatu eta bi aldeetatik abiatu dira Zaragozarantz. Bidean, inguruetakoa gobernadoreen opariak: janariak, dirua, bahituak...

Zaragozatik egun batera, Sulaymanen harrera. Aberastasun itxura eta opari bikainak, baita emakume bahituak ere. Horien artean Idoia ikusi du Mikelotek.

Sulayman eta Karlomagno elkarrekin Zaragozarantz. Hara iristean, ustekabea: harresiko almenetan jenderik ez harrera egiteko, eta ateak itxita. Sulayman zurbil.

XII. [Lizarra](#) · [Buruzagien eta jendearen bilera](#) · [Ortziren Hortza](#)

Lizarratik hurbil, Lezaun izeneko lekuan, euskal buruzagien bilera: Ximeno, Mutarrif, Santxo, Lodi eta Sara ordezkariak. Inguruan jende asko.

Frankoen boterearen eta eskakizunen aurrean zelan jokatu eztabaidatu dute. Errege bat aukeratu beharrez mintzatu dira, baina ez dira ados jarri. Bukatzeko, Gartxot gerlari ohi miretsia mintzo: ahal dela ez dira borrokatuko frankoen kontra, baina behar izanez gero Ortziren Hortza esnatuko dute.

XIII. [Sulayman haserre](#) · [Al Hussaynen plana](#) · [Jâbir](#)

Sulayman Al Hussaynekin haserre bizian, eztabaidan: ezin du ulertu zergatik itxi dituen ateak.

Jâbir ikusi dute paper artean. Idoia agertu da zerbitzari. Jâbir harri filosofalaren bila dabil. Jakintsua da. Iruñean egon zen, Karlos erregea han izan zenean. Sulaymanek koldar jokatzeko egotzi dio Al Hussayni, baina honek jakiturian du itxaropena. Adaba aipatzen du: unibertsoa, jainkoa.

Dio kristauak ez dutela kultur mailarik eta erlijioaren izenean gerra eramango dutela mundu osora. Sulaymanek ulertu du argudiaketa eta onartu. Orain Qarl-engana itzul daiteke edo hirian geratu. Harekin itzuliko da, denbora irabazteko, negoziatio korapilatsuak planteatuaz.

XIV. [Karlomagnoen zalantza](#) · [Ekialdeko armada iritsi da](#) · [Sulayman hiritarrak xaxatzen](#)

Zaragozan, frankoen kanpamentuan Karlomagno baroiak hartu ditu. Aita santuaren gutuna: jainkoaren alde borrokatzeko eta garaitzeko desioa. Baroiek harresiaren kontra berehala ekin nahi diote. Karlomagno zalantzan dago; hiru aukera: negoziatu, setioa edo eraso.

Ohartu dira Al Husseynekin diziplinatuak direla. Laster iritsiko da frankoen ekialdeko armada.

Ebrotik batel handiak agertzen hasi dira, soldadu itxura beldurgarrikoak. Jendeak urduri ikusi ditu hiri barrutik; ateak zabaltzeko eskatzen hasi dira. Al Hussayn, ordea, bateletatik zer jaisten duten aztertzen ari da, eta bitartean Sulayman jendea xaxatzen bere buruzagiaren aurka.

XV. [Solstizioa](#) · [Euskaldunen jai handia](#) · [Akelarrea](#)

Urteko egunik luzeena. Euskaldunen egun sakratua. Akelarrea. Mikelot amets batean murgildu da.

XVI. [Zaragozak eutsi](#) · [Jâbirren laguntza](#) · [Idoiaren mezua Mikeloti](#)

Zaragoza setioari eusten. Al Hussayn heroi bihurtua hiritarrentzat. Mikelot harresien ondoko muino batera hurbildua, kantari, Idoiari. Jâbirrek lagunduta Idoia ohartu da eta harresitik entzun dio. Jâbirrek lepokoa hartu dio, lauburua. Geroxeago, zaindari batek gezi bat jaurti du Mikeloten ondora; Idoiaren lepokoa dago gezian.

XVII. [Karlomagnoen porrota](#) · [Sulayman gatibu](#) · [Mikelotek ihes](#)

Karlomagno Zaragozakoekin negoziatzen ari da. Asteak igaro ahala gero eta kezkatuago. Zaragoza barik, Alandalusa ere ezin hartu, porrota. Itzultzeko agindua eman du. Azken saio batean, Sulayman harrapatzen ahalegindu dira, harresiko aterantz itzultzean beraien talde bat ere sartzeko. Egin dute, baina hirikoek atea itxi eta Sulayman Karlomagnoen gatibu geratu da.

- Errolan azken ahalegin horretatik itzuli denean, Mikelotek ulertu du alde egin behar duela. Soldadu franko batek lagundu dio (Hunaldo). Atzetik jazarri zaizkio soldadu batzuk, baina basora iritsi eta aske da.

XVIII. [Sulaymanen askapena](#) · [Karlomagno suminduta](#) · [Iruñeari erasotzeko erabakia](#)

Sulaymanen semeek frankoen kanpamentura, 50 soldadu taldearekin. Aita askatu nahi dute. Sartu dira kanpamentura. Anabasa era borrokaldiak sortu eta ihes egitea lortu dute. Taldekoak hilik ia denak.

- Bi egun geroago, Karlomagno Erriberriko gazteluan dago, suminduta. Exekuzio ugari agindu du bere armadan. Gainera, jakin du baskoien ebanjelizazioa gaizki doala. Turpin gotzainaren agindupeko klerikoak hiritik egotzi dituztela. Iruñeari eraso egitea deliberatu du

XIX. [Zaragozan ospakizunak](#) · [Iruñean erasoak](#) · [Mikelot zauritua](#) · [Leire hila](#) · [Eneko eta Fortun salbu](#)

- Zaragozan, Al Hussayn eta hiritarrak garaipena ospatzen. Idoia aske, Mikelotekin beren herrirantz. Idoia familiakoengara; Mikelot Iruñerantz.

Iruñera frankoak sartu dira, Mikelot Leirerekin dagoela. Leire izututa, mugitu ezinik. Mikelotek etxetik ateratzea lortu du, baina Eneko eta Fortun umeak ikusi ditu etxera sartzen, soldaduenganantz; zaurituta erori da.

- Borroka latzak, etxeak sutan... Oneka hartu dute frankoek. Libratu da baina haurrak galdu dira. Hiriaren kanpo alderantz doaz, hiritar gehienak bezala, sartaldeko aterantz, baskoi gerrariak babestuta.

- Mikelot izartu denean, soldadu frankoak ikusi ditu bortxaketan: Leire. Honek ikusi du Mikelot, baina hilzorian dago. Etxean, sabaian gordeta, umeak.

Iñigo eta Gartxot iritsi dira laguntzera. Hilakuntza egin dute. Salbu daude umeak eta Mikelot.

XX. [Iruñea sutan](#) · [Ximenoren erabakia](#) · [Mikelot Ortziren Hortzaren bila](#)

- Iruñea sutan. Franko soldaduak harresia zulatzen. Iheslari asko Haitzbitarten bilduta. Menditarrak iritsi dira laguntzera. Ximenok mezulariak bidali ditu: hasi da gerra, mendietan izango da borroka.

Mezulariak itzuli eta frankoen mugimenduen berri eman dute. Ximenok ezin die abisu eman Erronkariko eta Zuberoakoei, pasabideak frankoek moztuta baitaude. Mikelot ausartuko da haiengana heltzen, Iratiko basotik zehar. Basajauni Ortziren Hortza eskatu behar dio.

XXI. [Mikeloten bidaia](#) · [Iratiko basoan galduta](#)

Abiatu da Mikelot. Gauera arte Aralar zaldiarekin. Ibaiaren ondotik Itoitzerraino. Handik Iratiko basorantz.

Han ekaitza: iluntasuna, nekea, galduta...

XXII. [Mikelot basajaunekin](#) · [Ortziren Hortza jo du](#)

Bidaiako laugarren egunean, eguna argitzean, hobeto dago Mikelot. Zaurituta, indar barik... Basajaunen aurrean Ortziren Hortzaren bila datorrela esan die eta egoera azaldu. Basajaunak bildu eta eman diote Ortziren Hortza: doinu berezia duen adar bat, gerlariei deitzeko.

Adarra hartu eta lehen tontorretik jo du. Soinua azkar hedatu da eta oihartzundu. Gero beste tontor batera...

Hala ere, frankoen ibilia moteldu beharra. Urkuluko dorrera iritsitako lehen gerlariei lehenbailehen erasotzeko.

XXIII. [Pirinioetan](#) · [Errolan erretagoardian](#)

Karlomagno eta Errolan hizketan. Egun bat gehiago behar dute Pirinioak igarotzeko. Ibañetatik ez joatea erabaki dute, bidea estua eta arriskutsua baita. Erromatar bidetik joango dira. Errolanek atzeko aldea sendotzeko bere burua eskaini du. Zaldizkorik onenak eta baroiekin.

XXIV. [Ibañeta](#) · [Ortziren Hortza jo](#) · [Borrokaldira latzak](#)

- Ibañetako mendatean. Abangoardia erlitzetik: Iralepo eta gero Astobizkarko malda. Ibañeta igo eta Lepoederrera iritsi da Karlomagno, Bernardo eta Turpin kondeekin. Baina armada erraldoia da; tropa pasabidearen luzean zabalduta.

- Mendiko isiltasunean ehunka talde ezkutaturik. Hegoaldean Banu-Qasitarrek (Mutarrif, Musa) frankoen armadari segika, isilean.

- Banu-Qasitarrek erasoari ekin diote, Ibañetako zabalgunean. Frankoak ezin antolatatu. Gorago, Lepoederren, enbor eta arrokaz, sekulako erasoak Antselmoren tropei, amildegirantz bota dituzte. Panikoa. Frankoak zatiturik.

- Erretagoardian beste eraso bat, baskoiena. Errolan, Olivier eta Ekkekart larri defenditzen. Ximenok Iralepon eraso, Zaharrak (erronkariarra) Astobizkarren, Gartxotekin. Iñigo Arista eta aita Ximeno kolosoa, borroka latzean. Frankoak atzeraka, lainorantz. Abangoardiaren laguntzaren esperoan. Azkenean aurrekoei iritsi zaizkie adar deiak. Karlomagno ohartu da erasoaz. Zaldi konpainia bat bidali du, Bernardo kondearekin. Baina segada batean erori dira.

- Iluntzea. Ibarrean borrokaldira etengabeak. Lepoederren Lodik Antselmori eraso, baina kontraeraso bortitza. Ximeno ohartu da une erabakiorra dela. Ortziren Hortza entzun dute: erronkariarrak. Mikelotek adarra jo. Oldarraldi ikaragarria. Frankoen armada zatiturik. Mikelot zauritua artatzen, Hunaldo aurkitu du.

- Ehiza maldetan, pendizetan, arbolartean, itzaletan. Atzean Errolan eta Olivier, zauriturik. Armada sarraskitua.

XXV. [Frankoak garaituak](#) · [Iñigo hila](#) · [Errolan hila](#)

- Frankoen armada garaitua. Iñigo borrokan hil da. Errolan basoan, noraezean, zaurituta. Ume bat ikusi du, aita hila arrastaka. Errolanengana itzuli da eta sastada eman dio bularrean. Durendal jo du arroka baten kontra. Hil egin da.

Gartxot eta Mikelot elkarrekin bildu dira